

ZERAINGO

urtekaria



2018



Otatza Sagardotegia

Joxe Antonio Iparragirre

20214 Zerain

Tel: 943 801 757



Ostatu Jatetxea

2014 Zerain

Tel: 943 801 799



ALDABE ZERBITZU TURISTIKOAK

Zerain Paisaia Kulturala

Informazio bulegoa, aterpetxea, ikastetxe eta familientzako egonaldiak eta udalekoak, talerrak eta erakusketak, bisita gidatuak (meategiak, museoa, zerrategia, etabar)

www.aldabe.com

Tel: 943 801 505

turismobulegoa@zerain.com



2018ko urtea bukatzeko eta 2019ari hasiera emateko hementxe dugu Zeraingo urtekaria.

Beste urte bat pasatu da eta urtero bezala aurten ere, zeraindarrok geure urtekaria argitaratu dugu.

2018 urtea, emakumeen inguruko adierazpen ezberdinen urtea izan dugu, hori dela eta elkarrizketaren tartean, Zeraingo herrian lan egiten duten zenbait emakumeren elkarrizketarekin osatu dugu, beraien lanaren inguruan elkarrizketatuz.

Aurten zeraindarrez gain, kataluñiar herriak ere ikusgai izango ditugu ondorengo orrietan, Cistella herriko lagunak izan ditugulako bisitan Zerain aldean. Bisita honen jarraipena emango diogu Zeraindik Cistella herrira udaberrian bisitan joanez, horretarako animatu gaitzen zeraindarrak Cistellara joateko, esku zabalik hartuko gaituzte eta!

Elkarrizketaz gain, gure gaia daukagu, bertan Zerainen urte berrian eraikiko diren etxebizitza sozialen ingurukoak aipatuko ditugu, urteko ekintzak, kolaborazioak eta haur eta gazte sortzaileen txokoak ere osatuko dute aurtengo urtekaria.

Azken hiru urteetan bezelaxe, ale hau Zeraingo etxe orotan jasoko da, baita ere, erakunde ezberdinetan eta eskuragarri izango da urtean zehar ere. Horrela, zeraindarrez gain, jende gehiagok ere 2018ko Zeraingo herriko berri izango du.

Urtekarian barneratu aurretik, eskerrak eman nahi genituzke. Lagundu duzuen guztioi, kolaboratzaileei eta basbeslei. Eskerrik asko!

Urte zaharra ondo amaitu eta berria ondo hasi.

URTE BERRI ON!

BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

Elkarriketa

ZERAINGO HERRIAN LAN EGITEN DUTEN EMAKUMEAK	6
---	---

Gure gaia

ETXEBIZITZA SOZIALAK	11
----------------------	----

Urteko ekintzak

EKINTZAK	19
ZERAINGO UDABERRIKO KULTURALDIA	21
ZERAIN IKURRA ETA IZENA	23
EUSKARABENTURA	27
ANDRA MARI JAIK	28
XXIV. AZOKA EKOLOGIKOA	33
EUSKAL HERRIA ETA KATALUNIA: ZERAIN - CISTELLA	38
OROKORRAK	45
AIPAGARRIAK	48
GABONAK	49

Kolaborazioak

BASARTE GURASO ELKARTEA	61
KATALUNIAR HERRIALDEAK	63
LUMAGORRIK 25 URTE BETE DITU	66
BIOLUR 25 URTE LANEAN	67

Gazteak sortzaile

AIZPEA ELORTZA ELORTZA	68
LUR ELORTZA ALTUNA	69
AETZ ELORTZA ALTUNA	69
ENERITZ AIZPEOLEA GEREÑU	70
ENARA AIZPEOLEA GEREÑU	70

EGILEA

Oa Kultur Elkartea
Urtekariko lan taldea

AZALA

Izar Foroni Ruiz de Larrinagak
egina da, urtekariko azalaren
leihaketako irabazlea.

MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA

Antza komunikazio grafikoa

LEGE GORDAILUA

SS-724-1996



MAITANE GARMENDIA
(BASOZAINA)



BEGOÑA OLARTE GARMENDIA
(UDALEKO GIZARTE TEKNIKARIA)



MIREN UGALDE IZETA
(UDALEKO ADMINISTRARIA)



LURDES LARRAÑAGA ELORZA
(OSTALARIA)



MAITE RETOLAZA OJANGUREN
(SAGARDOGILEA)



ANA EZEIZA AGIRRE
(ARKITEKTO AHOLKULARIA)

ZERAINgo herrian lan egiten duten emakumeak

Maitane, Begoña, Eskolako irakasleak, Miren, Lurdes, Luixa, Milagros, Maite, Arantza, Miren Josune, Ana, Elena, Alazne, Arantxa, Marijose, Amaia



ESKOLAKO IRAKASLEAK



LUIXA AIERBE MUJICA
(NEKAZARIA - ABELTZAINA)



MILAGROS OIARZABAL LEUNDA
(ARTZAINA)



ALAZNE SAIZAR (HERRIKO MEDIKUA)



MIREN JOSUNE BENGOTXEA OTERMIN
(ESKOLAKO ZAITZAILEA)



MARIJOSE MURUA ETXABE
(ZUZENDARI GERENTEA)



AMAIA JUNQUERA LANDETA
(MIKROENPRESENTZAKO
FINANTZA ETA
ADMINISTRAZIO
BIDERATZAILEA)



ARANTXA GOIKOETXEA
(HERRIKO ERIZAINA)



ELENA LOPEZ FEJOO
(UDAL GARBITZAILEA)



ARANTZA RUIZ DE LARRINAGA OLAIZOLA
(ALKATEA)



Oiharte

Nekazalturismoa eta sagardotegia

Maria Luisa Urrestarazu

20214 Zerain

Tel: 680 171 291

1. Noiztik lan egiten duzu lan postu horretan?

MAITANE: 2010-eko ekainean hasi nintzen.

BEGOÑA: 1990 urtean hasi nintzen Gizarte Langile modura inguruko lau herri ezberdinetan, konkretuki, Zegama, Segura, Mutiloa eta Zerainen. Herri ezberdinak izanik, biztanleen kopuruen eta portzentailaren arabera, Zerainen astean behin lan egitea tokatzen zait, ostegunetan eta ordu kopuru txiki batetara.

IRAKASLEAK: Danetarik gaude, baina gehientsuenak aurtur etorritakoak gara eskolara.

MIREN: 1992ko maiatzean hasi nintzen Zeraingo udaletxean administrari bezala lanean.

LURDES: Duela 2 urte pasatxo.

LUIXA: 1983-z geroztik.

MILAGROS: Jaiotzetik, betidanik, Ereñozun bizi nintzenetik ere bai, gaur egun Zerain inguruan.

MAITE: 2009tik

ARANTZA: Alkate izendatua izan nintzen 2015eko ekainaren 13an, indarrean dagoen udal agintaldia hasi zen egunean. Agintaldi hau datorren urtean, 2015eko ekainean, amaituko da.

Alkate izatea ez da nire lana, herri txikietako alkate eta zinegotzi guztiek borondatez egiten dugu lan. Koxkorragoak diren herrietan, Segura, Idiazabal, Lazkao kasu, horietan bai, udal ordezkari batzuk lana utzi eta udalean murgiltzen dira ordaindutako dedikazioarekin.

Gipuzkoan 89 herri gara eta horietatik 30 baino gehiago mila biztanle baino gutxiago ditugunez, horietan herrigintza eta udalgintza bat eginez jarduten dugu. Nire ustez udal ordezkari aritzea herri txiki hauetan hiritartasun eskola batean egotea bezala da. Askok ikasteko aukera eskaintzen du herriaz, herritarrez, udalaz, eta bestelako erakundeez ere.

Pentsatzen dut ahalik eta pertsona gehien pasa beharko ginatekeela esperientzia honetatik, alkate eta zinegotzi lana profesionalizatu ordez, konpartituz eta zabalduz, denek dugu eta herriari emateko gaitasuna; garrantzitsuenak nire ustez, gogoia eta ilusioa dira.

MIREN JOSUNE: 2003. urtetik nago Zeraingo herri eskolako jangela lanean.

ANA: Duela urte askotatik, zehatz mehatz 1996 urtetik lan egiten dut Zeraingo Udaleko arkitekto aholkulariaren postuan, hasiera batean senarra zenarekin eta gaur egun alabarekin.

ELENA: Orain dela 25 urtetik.

ALAZNE: 2016ko urtariletik aurrera.

ARANTXA: Orain hasi berria, 2018ko urri hasieratik.

MARIJOSE: 1993an Lumagorri sortu zenetik lanpostu honetan nago, atsedena dia hartu nuen hiru urte ezik (2010-2012).

AMAIA: Orain dela 4 urte, nire aurreko lana uztea erabaki nuen eta nire kabuz jarri nintzen. Autonomo eta mikroenpresentzako finantza eta administrazio kudeatzaile bulego bat ireki nuen nire etxean.

2. Zuk aukeratu duzu Zerainen lan egitea? Gustora al zaude lan horretan?

MAITANE: Ez, ezin izan nuen aukeratu: basozain bakoitzak herri desberdinez osatutako zonaldean egiten dugu lan, eta Zegama-Zerain-Mutiloa zeraman basozaina lekuz aldatu behar zela eta, niri eskaini zidaten zonalde hau. Gustora nago lan honetan, egia esan, zorte handia izan nuen, etxetik gertu eta gainera ingurune oso polita da eta.

BEGOÑA: Nire lanpostua lau herrietan proportzionalki lan egitearena da, lehen aipatu dudana modura, ez ditut nik nahiko nituzkeen adina ordu Zerainen, denborak asko laguntzen du lana hobetzeko baina, egoera honela dago eta ahal den moduan eramaten dut, beti ere irekia naiz eta norbaitek arazoren bat badu, edozein beste herri batetan kontsulta egitea ere askotan tokatu izan zait. Gure lanean malgutasuna eta diskrezioa oso beharrezkoa dela ikusten dut eta horretan saiatzen naiz. Batzuetan errazagoa egiten zait eta besteetan berriz, lan konplikatu, arazo nahiko potoloak ibiltzen bai ditugu esku artean.

ESKOLAKO IRAKASLEAK: Hemen ere danetarik dago, batzuen aukera izan da eta beste batzuk ordezkapenetan izendatu izanak ekarri gaitu Zerainea.

MIREN: Bai, nik aukeratu nuen Zerainen lan egitea eta gustuko dut lan hau, egunero ikusten eta ikasten ari naiz. Urte guzti hauetan zenbait gora-behera bizi izan ditut, anekdota eta oroitzapen asko ditut. Momentu txar eta onak bizi izan ditut, baina txarretik ere zerbait positiboa ateratzen saiatzen naiz.

Dena asko aldatu da. Gaur egun, aurrez-aurreko hartu-eman desagertzen ari da. Teknologia berriak sartu dira eta horrek zenbait gauza on lapurtu dizkigu, baina honi ere nonbaitetik alde honen bat bilatu beharko diogu...

Oraintxe ere burura etorri zait, lanean hasi nintzenean, zer aholku eman zidan nire gertuko batek. 19 urte lehenago berak jaso zuen aholkua: "lanean ongi joateko, ikusi, entzun eta gorde egin behar da", eta orain ere, onena, horixe egitea izango det.

LURDES: Bai, oso gustora nago lan honetan.

LUIXA: Bai, bai bizimodu bat delako.

MILAGROS: Bai, ikulua bertan hartzeko aukera izan genuen, beste erremediorik ez zen. Gustora bai.

MAITE: Bai. Bai

ARANTZA: Alkate lanetan gustura ari naiz, bai. Hasieran aitortu behar dut arraro sentitu nintzela, agian ez nuelako espero alkate izatea. Gero denbora pasatzen doa eta ohitu egiten zara. Orain naturaltasunez bizi dut, eta hala izan behar duela uste dut gainera.

Udalan aritzeak Zerain eta zeraindarrak hobeto ezagutzeko aukera eman dit eta herriarentzat proiektu berri eta interesgarriak egiteko aukera. Jende asko ezagutzen ari naiz zeraindik kanpo ere, eskualdean eta Gipuzkoan, eta hori oso interesgarria da. Pozik nago guzti horrengatik.

MIREN JOSUNE: Guraso batzuen ekimenez hasi zen. Hasieran lau umeekin, baina berehala gehiago hasi ziren. Orain 18 ume daude eta bi langile.

Bai, nik herrian lan egin nahi dut eta gustora nago.

ANA: Bai, nik aukeratu nuen senarrarekin batera. Oso gustora nabil, zeraindarrekin harremantzeko eta bertako kultura ezagutzeko aukera ematen dit eta.

ELENA: Bai, pozik nago.

ALAZNE: Bai, nik aukeratu nuen eta oso gustura nago.

ARANTXA: Osakidetzak hainbat aukeren artean eskaini zidan, eta horien artean aukeratu nuen. Oso gustura nago egindako aukerarekin.

MARIJOSE: Bai, sortzaileok aukeratu genuen Zerain-en lantegia kokatzea, hasieratik izan nuen herriaren babesa eta gustora nago bertan lanean. Egutero Naturaz gozatzeko aukerak oso ondo sentitu arazten bai nau.

AMAIA: Bai, damutu ez naizen erabaki bat izan da, etxetik lan egiteak askatasun handia ematen dit nire lan ordutegiak antolatzeke. Nire bezeroek badakite ia edozein momentutan deitu ahal didatela. Nire bezeroekin oso tratatu pertsonalizatua edukitzen saiatzen naiz eta horrek beste kudeatzaileengandik desberdintzen nau. Oso pozik nago erabaki hau hartzeaz.

3. Ba al du lan honek ezberdintasunik emakume izanagatik?

MAITANE: Orokorrean ez, ez dut diferentziarik notatu. Hasi, jendeari arraroa egin zitzaion emakumezkoa basozain postuan ikustea, baina lehen hilabetea pasata, jendea ohitu zen.

BEGOÑA: Ez dakit zein den arazoa, baina gure lanean, gehiengo handi bat emakumezkoak gara, Goierriko herri ezberdinetan begiratzea besterik ez dago, udal guztien artean, gizonezko bakarra dugu momentu honetan lanean. Gizarte lana beti emakumearen lantzat hartu izan dugu nonbait eta ez dauka zertan. Gizonezkoak animatu beharko ditugu.

IRAKASLEAK: Ez bereziki, kasu honetan gehiengo emakumea izaten da eskola gehienetan, batez ere Haur Hezkuntzan.

MIREN: Emakume naizelako inork ez nau desberdin tratatu edo ez naiz hala sentitu behintzat, eta nik ere emakumezko nahiz gizonezko, denak berdinean tratatu ditudala uste dut (hori nor berak esatea ez da egoki izango eta hurrengoan besteen iritzia jaso behar).

Nire lanpostu maila bereko lankiderik ez dago Zeraingo Udal-letxean eta ezin berarekin alderatu, baina eskualdeko beste udal-letako langileekin alderatuz aldeak badira. Lanpostu maila berdina izan arren (emakumezko edo gizonezko), lan karga, ardua eta soldatan adibidez.

LURDES: Ez

LUIXA: Ez, momento batzuetan indarra kontuak traba izan daitezke.

MILAGROS: Kargako lana tokatzen denean, batzutan indar gehiago izatea hobeto, baina orokorrean ondo.

MAITE: Ez det uste, nahiz eta egun gizonezko sagardogile gehiago dauden emakumezkoak baino.

ARANTZA: Alkatea eta emakumea izatea oraindik ez dago erabat normalizatuta gure jendartean, ikusi besterik ez dago zenbat emakume alkate gauden Goierri, zenbat Gipuzkoan eta zenbat Euskal Herrian. Oraindik oso gutxi, gutxiegi berdintasuna dagoela esateko.

Zeraingo lehen alkate emakumea izan naiz, Zerainen beraz, ez da alkate emakumerik egon XXI. mendera arte. Niretzat pozgarria izan da Zerainen ere urrats hori eman izana.

Emakumeak aspaldi gaude prestatuta alkate, diputatu nagusi edo parlamentariak izateko, baina motel goaz espazio horiek gure egiten. Gipuzkoan adibidez, noiz izango da diputatu nagusia emakumea? Zeren zain gaude?

Gaur egungo erakunde publikoak zaharkituta daude eta berri egin behar ditugu. Horretan uste dut, emakumeek gauzak egiteko dugun moduekin, azkartu dezakegula prozesu hori.

Hemendik emakumeak animatu nahiko nituzke eremu publikoan ardurak hartzera, ona da hori guztiontzat. Urte hauetan udal-let batzartzeri etorri diren askok komentatu digute sorpresa hartu dutela, (eta sorpresa pozgarria, hain zuzen ere) alkatea, zinegotzia eta arkitektoa denak emakumeak direla ikusi dutenean. Beraz, argi dago imajinarioan espero ez badugu ere, gustura hartzen dela aldaketa.

Zailtasun berezirik ez dut sentitu egin beharreko lanetan emakumea izateagatik, egia esateko. Zailtasuna ez da emakume izateagatik, hiru eremu desberdinetan egin beharreko lana konbinatu behar izateagatik baizik; lan eremu profesionala, eremu pribatua eta eremu publikoa. Ez da arraroa izaten gure udal taldeko bileretan ikustea nola irten behar izaten garen alaben bila joateko eta etxean utzi eta gero, berriro bilerara itzultzen garen....

MIREN JOSUNE: Ez, pazientzia pixka bat eduki ezker edo inork egiteko moduko lana da.

ANA: Bizitza profesionalaren hasieran nabaria zen gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna. Orain aldaketa nabaritzen da eta pixkanaka berdintasunaren bidera goazela sumatzen dut.

ELENA: Ez.

ALAZNE: Lanak berak ez, baina nik uste gaixotasunak ezberdin ikusten direla emakume edo gizonezko medikuen ikuspuntutik.

ARANTXA: Ez zait iruditzen, baina agian zaintza kontua bai dago emakumeari lotuago.

MARIJOSE: Kudeaketaren ahalegina, momentu zailetan dugun argia eta kemena. Etsipenaren aurrean etengabeko baikortasun ikuspuntua izatea.

AMAIA: Ez, lan eremu honetan emakume asko gaude eta inoiz ez naiz diskriminatua sentitu.

4. Hobetzekorik ikusten al duzu lan honetan emakumeen ikuspegitik?

MAITANE: Ba, egia esan, emakumezkoen presentzia handiagoa izatea ondo legoke... Gipuzkoa osoko 48 basozainetatik 3 emakumezko bakarrik gaude.

BEGOÑA: Hobetzeko gauza asko egin litezke, beti daude gauzak, baina nire kasuan denbora eta patxara gehiago beharko nuke egunerokoan.

IRAKASLEAK: Eskolako foro ezberdinetan (OOG, Behatokia...) gehienak emakumeak dira, agian gizonezko gehiago animatu beharko litzateke bertan parte hartzera.

MIREN: Hobetzeko betik egoten da, emakumezko nahiz gizonezkoen baldintzapean eta lanpostu guztietan.

LURDES: Baliteke

LUIXA: Bai, emakumearen rola aldatuz, ama, erizain, neskame.... Gure ohiturek eragiten dizkigun trabak gainditzin.

MILAGROS: Artzantzatik bakarrik bizitzeko aukera zaila ikusten dut, genero ikuspegia kontutan izan gabe. Ogibide honetan dena zerotik izan ez gero, baserri ikulua erosi behar, terrenoak erosi, ardiak...

MAITE: Gure kasuan, lan berean Haritz eta biok gera eta biok berdin hartzen ditugu erabakiak eta lan banaketa ere bai. Akaso esan, sagardotegiko bezeroei dagokionez, astean zeharreko bezeroak ia gehienak gizonezkoak izaten direla eta emakumeak ere animatu nahiko nituzke tarteka iluntzatan tartetxo bat hartu eta lagunekin sagardotegietara joateko tertuliatxo bat eginez.

ARANTZA: Beti hobetu daiteke, noski. Uste dut emakumeak udal ordezkari lanetan aritzeko oso egokiak garela, eta gehiago egon daitezen lan egin behar dela. Lagunduko luke alkate figura baino, talde lana bultzatuko balitz, emakumeak gusturago sentitzeko oraindik arrotzak zaizkigun espazioetan. Protokoloetan ere beste horrenbeste esango nuke, beste garai batean sortutako protokoloak erabiltzen ditugu gaur egun, gizonezkoentzat sortutakoak; horiek ere egokituko nituzke gertuagokoak eta ez horren hotzak izateko.

MIREN JOSUNE: Hobekuntzak beti egin daitezke, baina eskola txiki bat izanik, moldatu egiten gara.

ANA: Emakumeok arkitektura eta hirigintzaren alderdi sentiberena argitara atera behar dugu. Hau da, herria herritarren zerbitzura jarri ekintza txikienetatik hasiz, errespetu handiarekin eta herritarren iritzia kontuan eduki ezer ezarri aurretik.

ELENA: Ordutegiarekin eta lanarekin konforme nago.

ALAZNE: Ez.

ARANTXA: Ez.

MARIJOSE: Amatasunari lotutako beharretan ulermena eta malgutasuna hobetu behar litzake. Etxeko giroa goxatzeko eta bizitzeko erreztasun gehiago izatea ondo legoke, nik ez bai dut laguntzarik izan.

Laguntza gehiagorik gabe, emakumeontzat zuzendaritzako lanpostuak hartatzea oso zaila egiten zaigu.

AMAIA: Autonomoa naizenez lan baldintzak nik jartzen ditut, baina nire kasuan lana eta aldi berean zinegotzia izatea egungo bizitzan eragiten dit, batzuetan nire lana alde batera utzi behar izanten dudalako. Baina, nire bururari esaten diodan bezala "inori ez zaio inporta noiz eta non egiten duan lan, gaueko ordu txikitik bada ere". Askatasun horrek poztasun handia ematen dit.



Tellerine Baserria

Nekazalturismoa

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpe auzoa

20214 Zerain

Tel: 943 582 031

GAZTE ETA ADINEKOENTZAT ETXEBIZITZAK ERRENTAN ZERAINGO HERRIGUNEAN

Artikulu honek Zeraingo kaskoan datorren urtean eraikiko diren etxebizitza publikoak hartu ditu gai modura.

Herriaren garapenean beste urrats garrantzitsu bat emango du Zerainek proiektu honekin eta artikuluan testuingurua, egindako prozesua, eta gaiari lotutako informazioa aurkituko dituzu.



TESTUINGURUA,

Herri txikien garapena estuki lotuta dago bertan bizi den komunitateak duen bizindarrarekin eta hartzen dituen erabakiekin. Erabaki horien artean garrantzi berezia izango dute, hirigintza-koek, lanari lotutakoek eta hezkuntzakoek.

Pasa den mende bukaeran hartutako erabakiek, Zerain garapen iraunkorraren bidean jarri zuten dudarik gabe.

Mendeetan Zeraingo kaskoa etxe eta baserri gutxi batzuk osatu dute, Jauregi, Bikarione, Benefiziadune, Errementeri, Xotegi ... Andra Mari elizarekin batera.

Zeraindar gehienak auzoetako baserrietan bizi ziren, Aizpen, Urkulluetan, Errekalden, Laiotz Lasustegin, Otatzan, Barbari Mendin...

XX. mendea bukatzerako zihoanean, eta ikusirik biztanleak galtzeko joera urtez urte errepikatzen zela, kaskoan 24 etxebizitza eraikitzeko erabakia

haria hartu zuten orduko gazteek. Auzoetatik kaskora etortzearekin batera, herritarrentzat eskaintzen ziren zerbitzuak indartu ziren.

Urtetan itxita egon zen eskola berriro ireki zen sekulako aurrerapausoa eginez.

Lehen aipatutako kaskoa eraldatu zen sei bloketan banatuta eraiki ziren 24 etxebizitzekin. Eta paisaia eraldatzearekin batera herriko bizitza ere, aldatzen hasi zen.

Hurrengo urteetan hirigintzari dagokionez, beste 25 bat etxe eraiki dira, familia bakarreko etxeak. Horietako gehienak kaskoan eraiki dira eta batzuk auzoetan.

Azken urteetan eraikitako etxeek dituzten ezaugarriak eta kostuak ez dira gazte jendearentzat aproposak. Herriko 23 gazte inguruko herrietara joan dira, Segurara, Zegamara, Lazkaora... eta horietako gutxi batzuk beste eskualde batzuetara ere.

Horrekin batera ezin aipatu gabe utzi, 2009an Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra, HA-POa egin zela. Plan horrek hurrengo urteetako etxebizitza eta ekipamendu beharra zehaztu zuen. Zeraingo Udalak hiru



lur sail publiko gorde zituen kaskoan etxebizitzak egiteko. Horietako bat da Antxaputxuko errotanda gaineko lur saila, hon-dakin gune eta aparkaleku gisara erabiltzen duguna. Plan horretan jasota dago etxebizitzak eraikiko direla bertan.

Ez dugu ahaztu behar herriak garapen orekatua izateko eta bizitza komunitarioa indartzeko ez dela nahikoa momentu jakin batean proiektu ausartak egitea, etengabe eta modu iraunkorrean landu beharko ditugu dauzkagun arazoei aurre egiteko alternatibak. Kasu honetan klabea da gazteek herrian egitea beraien bizimodua.

GAUR EGUNGO ARAZOAK ETA AUKERAK

Gazteei dagokionez, gaur egun gure gazteriarentzat zaila da emantzipatzea; Europako gainerako herrialdeekin konparatuta, gure gazteek beranduago uzten dute habia, 30 urteren inguruan. Hori zergatik den aztertzerakoan aipatu beharra dago alde batetik lortzen duten lana askotan lan prekarioa dela eta zaila dela gaur egun etxebizitzek duten prezioari aurre egitea gazte askok duten soldata kaxkarrarekin.

Bestetik merkatuan dagoen etxebizitza eskaintzak ez die egoki erantzuten gazteen beharrei. Salmentako etxebizitza handiek osatzen dute gaur egun Goierriko eskaintza nagusia. Errenta merkean etxebizitza txikiak aurkitzea oso zaila da. Egoera horren eraginez, Zeraingo makina bat gazte inguruko herri handiagotara bizitzera joan da.

Eskuartean dugun etxebizitza proiektuak egoera honi aurre egin nahi dio eta herri proiektua indartu nahi du gazteei habiatik lehenago irten eta herrian bertan bizitzeko aukera eskainiz.

Proiektuak helburu soziala dauka ezbairik gabe, etxebizitzaren prezioak eragiten dituzten arazoei alternatiba bilatu eta gazteen emantzipazioa errazteko politika publikoak aktibatzea dakar.

Zaharrei dagokionez gure gizartea, Europako joera jarraituz, zahartzen ari da. Gero eta urte gehiago bizi gara, eta bizitzeko ohiturak aldatuz joan direlako, hiriguneetan zein landa guneetan adineko pertsona asko bakarrik bizi da. Zerainen ere antzekoa gertatzen da. Adineko pertsonak gai dira modu autonomoan bizitzeko, baina batzuetan osasun, lan karga eta bereziki garraioarengatik zailtasunak izaten dituzte kaskotik urruti bizitzeko, are gehiago herrian familiaren laguntza zuzenik ez dute nean.

Gauzak horrela, irtenbide berriak pentsatu beharko dira adineko herritarrek ahal duten gehien bakarrik eta bere herrian bizi daitezen. Adinekoak gure herri txikietan klabeak dira gure sustraiak eta gure proiektu komunitarioa mantentzeko. Beraz, adinekoei beraien inguruan bertan bizitza autonomoa errazteko aukera eskaintzea dagokigu. Proiektu honen bidez baserri edo etxe handitan bakarrik bizi diren, eta irisgarritasun arazoak izan ditzaketen adineko pertsonen, herri kaskoan auzotarrez inguratuta eta irisgarritasun arazorik gabe bizitzeko aukerak eskaini nahi dizkiegu, herrian bizitzen jarraitu dezaten.

Gazteen eta adinekoen problematikei aurre egiteaz gain, beste helburu bat ere badu proiektuak; Eraikin bakar batean gazteak eta adinekoak bizitzeak aukerak sortzen dizkigu elkarren arteko elkarbizitzarako osagarriak izan daitezkeen elementuak lantzeko ekimen desberdinen bidez.





PROZESUA: EGINDAKOA ETA AURRERA BEGIRAKO URRATSAK

2015- 2019ko agintaldirako EHBilduk herritarren laguntzarekin osatu zuen programan gazteria eta adinekoen arloan jasota dagoen ekintza nagusia etxebizitzaren ingurukoa da eta honela dio:

Herriko gazteak eta herriko adinekoak herrian bizitzeko aukera izan dezaten proiektu berritzaile bat landu.

Helburu hori buruan genuela eta ilusio handiarekin ekin genion proiektuari 2016ko abenduan. Bi urte eman ditugu, beraz, proiektua lantzen eta pozgarria da benetan ikustea herri txiki batentzat zaila den arren hirigintza proiektuak garatzea, ez dela ezinezkoa. Ezina ekinez egina, dio Euskal Herriko esaera ezagun batek, eta beste behin ere, frogatu dugu Zerainen, hala dela, go-goarekin eta lana eginez goazela aurrera.

Lehen ekintza Bizkaiko Atxondoko alkatearekin bilera egitea izan zen, horretarako bertara joan ginen Udal taldea osatzen dugunok. Atxondon eraikin zahar bat berritu zuten eta bertan

hainbat etxebizitza egin zuten errentan duela urte gutxi. Proiektu horren berri jakiteko gerturatu ginen Atxondora. Bertan jasotako informazioarekin pozik itzuli ginen, haiek egindako bidea eta bidean izandako kontaktuen berri eman zigutelako.

Bermeoko udalarekin harremanetan jarri ginen ondoren gaiari buruz gazteei zuzendutako egin berri zuten inkestaz galdetzeko. Haien aldetik ere informazio erabilgarria jaso genuen eta gazteen inkesta martxan jarri genuen lehenik udalerrri mailan eta gero eskualde mailan.

2017ko otsailean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko arduradunekin lehen bilera egin genuen, eta udalerriko egoeraz, eta proiektua egiteko genuen asmoez aritu ginen. Guztira lau izan ziren 2017an Etxebizitza Saileko arduradun politiko eta teknikoekin egindako bilerak, urte horretan bertan, urrian, diru laguntza eskaera aurkeztu aurretik.

Bitartean, eta modu paraleloan arkitekto taldea aukeratu genuen eta proiektua lantzen hasi ginen beti Hirigintza batzordearen laguntzarekin.



Lehenik aurre proiektua landu genuen 2017an eta behin diru laguntza lortuta, exekuzio proiektua landu genuen. Bitarte horretan, 2017ko abenduan, Nafarroara joan ginen bisitan. Berriozarko alkatearekin bildu ginen bertan eraiki zuten gaztetxearen eraikuntza prozesua ezagutzeko asmoz. Bidean lagundu diguten udal eta erakundeei hemendik gure eskerrik beroenak.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren diru laguntza eta Fiare Banca Eticaren finantzazioa du proiektuak eta 2019an eraikiko dira:

- Alokairu sozialeko zortzi etxebizitza, logela batekoak eta bi-koak. 50 m2 inguruko etxebizitzak.
- Bioeraikuntza.
- Prezioa 96 eta 250 euro artekoa, hilean.
- 35 urte arteko gazteentzat, zein 70 urtetik gorako helduentzat.
- Elkarbizitza eta kolaborazioa lantzeko helburua auzotarren artean.
- Plazatik gertu, herriaren erdigunean kokatuta eta oinezko sareekin komunikatuta.

Aurrera begira urte berriarekin batera obrak hasiko dira eta 9 hilabeteko iraupena aurreikusita dago etxeak eraikitzeko. Eraikuntza lanak egiten diren bitartean, etxebizitzaren esleipen prozesua jarriko dugu martxan: izen ematea eta aukeraketa. Proiektuaren lehen harria laster jarriko da eta dagoeneko sortu dituen harrera ona eta espektatibak ikusirik, pozik gaude.

Herri txikiarako alternatiba eraginkorra eta egingarria da gure ustez, eta dagoeneko ikusmina sortu du beste herri batzuegan eta EJKo Etxebizitza Sailean ere. Eta noski, Zeraingo eta inguruko gazte eta adinekoengan.

INTERESATUTA BAZAUDE

- Jar zaitez dagoeneko harremanetan Zerain Dezagun Fundazioarekin edo Zeraingo Udalarekin.
- Etxebiden apuntatuta egoteak tramitazioa asko errazten duenez, interesatuei komeni zaie Etxebiden inskribatzea.

BIOERAIKUNTZA

Zeraingo proiektuarekin koherentziaz jarduteko, eraikinak osasungarria izan behar du. Maila guztietan osasungarria; fisikoki, emozionalki eta espiritualki osasungarria, alegia.

Era berean, eraikinak ederra izan behar du. Eraikinen barne giroa zaintzea ezinbestekoa da, erabiltzaileek eroso eta gustura sentitzeko eta horrez gain bereziki zaindu behar da osasunari kalte egingo dioten elementuak saihestea.

Barne espazio ederra eta eroso izan dadin bioeraikuntza eta bioklimatika kontzeptuak erabiliko dira proiektu honetan.

Eraikinak Energetikoki oso eraginkorra izan behar du gainera. Energia kontsumoa ahal bezain beste murriztu beharko genuke, ahal balitz Europak urte gutxi batzuk barru eskatuko dituen balio horietara helduz (ia energia-rik kontsumitzen ez duen eraikina).

Behar duen energia, ahal den neurrian, energia iturri berriztagarrien bitartez lortuko du gainera.

Eraikinak Azterna Ekologiko txikia izango du, eta hau gutxitzeko neurriak proposatuko ditu. Tokiko material naturalak erabiliko dira eta gainera, tokiko baliabideak lehenetsiko dira.

Etxebizitza txikiak planteatzen dira, babestutakoak, eta beraz, alokairu merkeak izango dituzte eta gazteei edota herrigunean bizi nahi duten adinekoei zuzenduak izango dira.

Eraikinaren diseinua energia eraginkortasuna buruan izanda landu da, hego ekialdean leihoak zabalduz, iparraldera ematen dutenak daukaten erabilerara mugatuz. Isolamendu maila altua planteatzen da, inertzia termikoa ere kontutan hartuz.

Eraikuntza lanetarako material jasagarriak, naturalak eta bertakoak erabili nahi izan dira. Honela, eraikinaren kanpo estaldura egurrezko oholen bitartez planteatu da.

Ura berotzeko eta berokuntzarako energia berriztagarriak erabiliko dira. Aerothermia instalazio baten bidez argindar instalazioa biobateragarria izango da. Eraikinaren erabiltzaileen osasuna ez kaltetzeko 50 HZ tako argindar instalazioaren eremu elektriko eta magnetikoa mugatuko dira. Mikrouhinaren eremu elektromagnetikoa ere zainduko da.



Eraikinean **8 etxebizitza** daude. Etxebizitza guztiak behe solairuan kokatzen dira. **4 etxebizitzek** programa osoa garatzen dute **behe solairuan**. Beste **4 etxebizitzek** programa nagusia **lehen solairua** garatzen dute. Etxebizitza guztiak oinezko bide inagarian kokatutako sarrera independentea daukate.



Aitxareei dagokionean, **bolumena bioklimatikoki** landu da, eraikinaren **pasibotasun energetikoa** eta behar diren argiztapen eta aireztapen baldintzen arteko konpromiso soluzio batera helduz.





Erakineren antolakuntza funtzionaltasuna eta modularutasuna bilatuz modu simetrikoan egin da. Modularitasunak lenak erraztuko ditu eta honek erakineren kostuen eragina izango du. Behe solairuan Hego – Ekialde aldera kanpo gune pribatu eta terraza edukiko dute. Iparralderantz eskegitokiak izango dituzte. Goi solairuan Hego-ekialde aldean eskegitokiak dauzkate. Eskegitoki guztiak bistatik egurrezko sare baten bidez babesten dira.



Proiektuak dagoeneko bi diru laguntza garantzitsu jaso ditu
**Eusko Jaurlaritzako ingurumen,
 lurralde plangintza eta etxebizitza sailetik.**

- 344.000,00 € babestutako alokaria bultzatzeagatik
- 25.000,00 € soluzio ekologiko berritzaileak bultzatzeagatik



PROIEKTUAREN ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA UEMAREN ESKUTIK

Zeraingo herrigunean 2019an egingo diren zortzi etxebizitza berrik izan dezaketen eragin linguistikoa ebaluatu du 2019an UEMAK, Zeraingo Udalak egindako eskaerari erantzunez.

Jakina da euskara zeharkakotasunez tratatu behar dela. Hau da, ez dela aski Euskara zerbitzuetatik soilik lantzea bere garapen osoa lortzea bada helburua. Zentzu honetan esan beharra dago hirigintzaren kasuan, honek udalerrian duen eragina zabala dela eta gutxienez eragin zuzena duela, ikuspegi urbanistikoa, ekologikoa, generoa eta hizkuntzaren eza-gutzan zein erabileran.

Horren adibide garbia Gatika da:

888 bizilagun ziren 1981ean eta euskararen ezagutza %90ekoa zen.

1.623 bizilagun ziren 2011n eta euskararen ezagutza %71koa bihurtu zen.

Bilbo Handia arintzeko asmotan, inguruko udalerrietan etxe ugari egin zituzten, asko eta neurri gabe. Erdal hiztunak joan ziren herri euskaldunetara, eta bertako bizitza ohiturak aldatu ziren (tartean, euskararen erabilera).

Adibide hau bezalako beste asko daude eta egoera ikusita Gipuzkoako Foru Aldundiak eta UEMAK aurrera begira egoera hauek gerta ez daitezen prebentzio tresna gisa ELE, eragin linguistikoa tresna, sortu zuen.

Zertarako?

- Euskararen arnasguneak zaintzeko.
- Eraikiko diren etxebizitzek egoera soziolinguistikoa izan dezaketen eragina neurtzeko.
- Eragin horiek aurreikusita, haiek murrizteko neurriak proposatzeko.
- Zerain, aurrerantzean ere, herri euskalduna izango dela bermatzeko.

Zerainen bezala ELE diagnostikoa egin dute Orion, Errezilen, Azeitian, Munitibarren, Lekeitio, Tolosaldean, Orexan eta Alegian. Eta lanean ari dira Izurtzan, Ondarroan eta Zestean. Zertan datza, nola egiten da eragin linguistikoa ebaluazioa?

- Azken urteetako migrazio mugimenduak aintzat hartzen dira indizea kalkulatzeko.
- Euskararen ezagutza, herriko komunikazioa, kultur bizitza, euskarazko zerbitzuak, kultur hizkuntza, jardura ekonomikoa, espazio libreen erabilera... bezalako gakoak neurtzen dira.
- Iturriak: Eustat, INE, Euskal Herriko Adierazle Linguistikoaren Sistemaren Informazioa (EAS), UEMA (Azterketa Soziokonomikoa eta Soziolinguistikoa) eta Zeraingo Udaleko datuak. Udal ordezkariekin eta arkitektoarekin betetako galdegia.

	Biztanleak gaur egun	Gaur egun euskaldunak	Etxe berriak	Biztanle berriak	Biztanle berriekin guztira euskaldunak	Euskararen Proiekzio indizea
Alokairuko etxebizitzak	257	%93	8	8*	%91,7	~%1,3

8 etxebizitzetan 16 biztanle biziko direla kalkulatu dugu, horietatik erdia, zortzi Zeraingoak izatea aurreikusten da eta beste zortziak:

- Lau Goierrikoak.
- Hiru Gipuzkoako gainerako eskualdetakoak.
- Bat Espainiakoa edo atzerriko beste herrialderen batekoa. Goierriko eta Gipuzkoako euskararen ezagutza hartu da kontuan eta migrazio mugimenduen estimazioa atera da. Ondorioa honakoa izan da: garrantzia gutxiko eragin negatiboa duela proiektuak.

Ebaluazioak dio beraz, 8 etxebizitzaren proiektu hau egiteak ez duela sortuko eragin negatibo nabarmenik Zerainen. Honekin batera eta neurri zuzentzaileak gomendatzen ditu aurreikusi daitekeen eragin txikia oraindik txikiagoa izan dadin.

Ondorengo horiek dira proposatutako neurri zuzentzaileak:

ETXEBIZITZAK EGIN AURRETIK

1. Etxegintzari lotutako lehiaketa publikoetan hizkuntza irizpideak kontuan hartu.
2. Obra lizentzia ematerakoan hizkuntza irizpideak txertatu.
3. Irizpideen artean izapideak udalarekin euskaraz egitea gehitu.
4. Obra arduraduna euskalduna izatea zehaztu lehiaketa publikoan.

5. Lehiaketan euskararen inguruko ziurtagiriren bat daukaten enpresak lehenetsi.

6. Etxebizitzaren inguruko iragarkiak eskualdeko euskarazko komunikabideetan jarri.

7. Herriko ostatuko langileekin hitz egin, eta hizkuntza irizpideen berri eman. Langileak hara doazenean, lehen hitza euskaraz egiten jarrai dezaten animatu.

ETXEBIZITZAK EGIN OSTEAN

8. Hizkuntza paisaiaren inguruko irizpideak mantentzea bideratu.

9. Finka-administratzaile euskaldunak hartu.

10. Etxebizitzaren erroldatzen direnean udaleko euskara sustatzeko lan ildoetan sartzeko aukera eskaini, baita herri bizitzako hainbat egitasmoetara ere.

11. Etxebizitza eskuratuko dutenei euskaraz ikasteko udaleko laguntzen berri eman.

12. Kanpotik datozen pertsonen kasuan Zerainen ezaugarrien berri eman, baita herriak eskaintzen dituen aukera eta zerbitzuen berri ere. Horrekin batera euskararen presentzia eta arnasguneen garrantzia hitz egitea.

Bukatzeke eta proposatutako neurriak beteko direla ziurtatzeko, jarraipen batzordea osatuko da Udal taldearen eta UEMAREN artean.

TXOTX

Zeraingo bi sagardotegiek urtarrilak 15ean eman zioten hasiera aurtengo denboraldiari. Urtero bezala jendez beteta eta ospakizun haundiz trikitilari eta bertsolariekin

**ZERAINDARRAK EMAKUMEEN
TALDEKAKO GIPUZKOAKO BOLA
TXAPELKETA IRABAZI DUTE**


Urtarrilaren 27an Seguran jokatu zuten Gipuzkoako taldekako bola txapelketak. Lehenengo aldiz izan zen emakumezkoen txapelketa eta Zeraingo taldea izan zen irabazlea. Belen, Mari Flor, Maria Jexux, Kontxita, Garbiñe eta Aitziberrek lortu zuten lehenengo postua. ZORIONAK guztion partetik. Gizonen txapelketa Segurak irabazi zuen, bailarako emaitza ona borobiltzeko.

SANTA AGEDA BEZPERA.

Uharka Abesbatzako kideak eta beste herritar batzuk, etxez etxe ibili ziren ohi-turari jarraituz eta bildutako diruaren erdia Xabier Makazaga presoaren familiarantzat izan zen eta beste erdia Zerainlabentzat, etxez etxeko banaketa proiektuarentzat zehazki.


**GIPUZKOAKO BINAKAKO
BOLA TXAPELKETA JOKATU
ZEN AÑORGAN OTSAILAREN
26AN.**

Goierritarrek emaitza onak lortu zituzten bertan, emakumezko nahiz gizonezkoetan aurreneko postuak, hain zuzen ere. Emakumezkoetan, Naiara Peñagarikano Gabiriarrak eta Rosa Santos hernaniarrak osatutako bikotea izan zen nagusi. Bigarren, Garbiñe Alustiza eta Aitziber Makatzaga Zeraindarrak gelditu ziren. Zorionak!! Gizonezkoetan berriz, Juan Mari Iñurritegi eta Pedro Agirre legazpiarrek jantzi zuten txapela. Bigarren, Jokin Izagirre eta Martzelino Agirre Segurarrak izan ziren.

**MARTXOAK 8, EMAKUME
LANGILEEN EGUNA**


Emakumeek kale eta plaza nagusiak bere egin zituzten eskubide eta soldata berdinak exijituz. Goierriin manifestazio jendetsua egin zen Beasaindik Ordiziara, inoizko parte hartze handienarekin.

Zeraingo plazan ere ez zen falta izan aldarrikapenik; eta gainera balkoietan eta udalean zintzilik amantalak ikusi ahal izan genituen lehen aldiz.



Arratsaldean Kultur Etxean Patri Espinar pilotaria eta Ainhoa Azurmendi kirol aholkulariarekin Pilota girls film laburra ikusi ahal izan genuen eta Mundialaren gaineko solasaldia egin. Kirol arloan emakumeen esperientzia eta errealitatea eza-gutzeko aukera ezin hobea izan zen.



Ondoren afaria egin zen Ostatuan denok elkarrekin ospatzeko.


TRANSUMANTZIA

Aurten ere herritik abiatuta eta mendiz mendi Urbia aldera igo dira artaldeak eta artzaiak.

**ETXEZ ETXE BANAKETA**

Zerainen otsailetik hasita Zerainlabek, Mandiok, Iñaki Intxaustik eta Maite Intxaustik bultzatutako egitasmo honen bidez ia 40 etxetan ogia, egunkaria eta esnea banatzen dute egunero -igandeak izan ezik. Pixkanaka hasi da proiektua eta bidean aldaketa batzuk egon dira egoerari moldatzeko.

IRENIA APAOLAZA ZERAINDARRA EUSKADIKO TXAPELDUNORDEA 300 METROTAN.



INAUSKETA IKASTAROA

Martxoan udaberria iritsi aurretik, Zerainlabek inausketa ikastaroa antolatu zuen bi egunez, martxoak 2an eta 3an.

ZERAINDARROK BILBON

Apirila erdian 50 bat zeraindar Bilboko Arte Ederren Museoan bisita bat egin zuten, Goya margolariaren erakusketa ikusteko.



ZEGAMA AIZKORRI MARATOIA

Maiatzaren 27an egin zen Zegama Aizkorri maratoia eta bertan hiru zeraindarrek parte hartu zuten aurten ere, Mikel Gartziandiak maratoia egin zuen, Josu Etxeberriak kilometro bertikala eta Aroa Saez de Egilazek junior Trail karrera.

LEMNISKATAREN ARGAZKI ERAKUSKETA

Kultur Etxean ikusgai egon zen martxoa eta apirilaren artean erakusketa. Bertan Goierriko zientzia sarearen azken argazki lehiaketan aurkeztu ziren lanak ikusi ahal izan genituen zeraindarrek. Argazkien gaia: matematika izan zen.



MAIATZA BUKAERAKO EURITEEN ONDORIOZ URRUZTIKO BIDEAN ARAZOAK IZAN ZIREN.



Pistatik behera urak harriak eta lurra eramane zituen eta bidea egoera oso txarrean geratu zen.

Udalak garbiketa lanak egin zituen eta bidea berriz erabilgarri geratu zen. Horrekin batera Zegamako Udalarekin batera egin zuen Zeraingo Udalak elkarrekin epe luzeko irtenbidea bilatzeko.

BI GOIERRITAR GARAILE KOPAN

Maiatzean amaitu zen Gipuzkoako bola egutegiko azken ligaxka, Ereñozun, Hernanin, Txapelketaren aurretik. Aipatu beharra dago Gipuzkoako Kopako bi txapeldunak goierritarrek direla: Jokin Izagirre segurarra eta Aitziber Makazaga zeraindarra. Gizonetan hirugarren beste zeraindar bat geratu da, Patxi Arrondo. Zorionak denei eta bereziki bi zerandarrei!!



EcoXpert
Certified by Sustainable Energy



AIZKORPE
Elektrikariak - Koop. E.

Era guztietako argi lanak etxe eta lantegietan- Led argiztapena
Telekomunikazioak- Iberdrola Puntua- Aholkularitza Energetikoa

Tfnoa: 943 800000
Faxa: 943 801826
www.aizkorpe.com

Goardiako Industriegunea 14 -1. Atzea
20213 IDIAZABAL - Gipuzkoa
aizkorpe@aizkorpe.com

943 800 000

ZERAINGO UDABERRIKO KULTURALDIA

Beste urte batez maiatzeko Kulturaldia ospatu dugu Zerainen eta mota askotako ekintzak izan ditugu hilabetearen zehar.



Lehen ekintza III. SEGURA-ZERAIN MENDI LASTERKETA izan zen, Sanson proba izenez ezaguna dena. Maiatzaren 5ean Segura eta Zeraingo mendi ibilbideak jendez bete ziren, batzuk lasterketa egiteko eta beste batzuk korrika ari zirenei animatzeko.



Baserritarren eguna, San Ixidro, ospatzeko HERRI BAZKARIA egin genuen beste behin ere eliz atarian, maiatzaren 13an igandez. Herriko produktuak izan ziren bazkariaren oinarria: herriko artzainen arkumeak eta Lumagorriko hegala. Denak Mendarteko mahastiko zoztekin parrilan eginak, goxo goxoak.



Lau izan dira aurten HITZALDI ETA EMANALDIAK. Guztiak oso interesgarriak. Erik Aznal Larrañagak (Ostatuko Lurdesen semea). "PASAICO BADIA" dokumentala zuzendu, produzitu eta editatu du beste bi kideekin. Berarekin batera dokumentala ikusi eta dokumentalaren inguruko solasaldi interesgarria egiteko parada izan genuen.



Alberto Santana historialari eta euskal etnografoaren txanda izan zen ondoren. Bertaratu zirenen artean sekulako jakin mina sortu zuen "ZERAIN. HERRIAREN IZENA ETA IKURRAREN HISTORIA" hitzal-diak. Bertan ezagutu ahal izan genituen gure herriko ikurren jatorria eta esan nahia, eta baita gure herria nola eta noiz sortu zen ere.



Azken txanda Aranzadiko arkeologoek izan zuten, Alfredo Morazak eta Manu Ceberio. "SAN ADRIANGO KOBAZU-LOKO INDUSKETA ARKEOLOGIKOAK" nondik nora doazen ezagutzeko aukera paregabea eskaini ziguten.



Kulturaldiari amaiera emateko joan den ostiralean, maiatzak 25ean, HAURREN MARRAZKI RALLYA, HERRIKO TRIKITIXA IKASLEEN KONTZERTUA ETA IX. PATATA TORTILLA LEHIAKETA ospatu ziren.



Herriko haurrek ikasturtean zehar ikasitakoa guraso eta herritarrei erakusteko aukera paregabea izan zuten eta egia esateko sekulako lana egin dute eta oso abesti politak eskaini zizkiguten. Zorionak guztiei!! Gure artean mitikoa bilakatu den patata tortilla lehiaketan 10 talde lehiatu ziren. Gustura dastatu zituzten egindako tortilla guztiak pilotalekura hurbildu zen jende andanak. Lehen saria hiru gaztetxok jaso zuten, Haizea Foroni, Irati Agirre eta Garazi Camino.



Bai Reformas

ERAIKUNTZAK - ERREFORMAK

ERRESTAURAZIOAK - BARNE DISEINUA

C/Ezkiaga, s/n - Beasain 20200

943 88 76 40 - 677 577 339

info@bairformas.com

www.bairformas.com



ZERAIN IKURRA ETA IZENA (1457-2017)

Zerainen, 2018ko udaberriko Kulturaldian Alberto Santana historiatzaileak emandako hitzalditik ateratako laburpena.

Izenaren inguruan, herriaren izena idazteko daukagun bertsio zaharrena CERAYN da. Hainbat teoria daude izen hau nondik datorren azaltzen saiatzeko. Teoria ulergarriena azaltzeko, orain dela 1.200 urte baino gehiagora joan beharko genuke. Garai hartan, gaur egungo jauregia dagoen lekuan Ceriano (Caerius izen erromatarretik eratorria) izeneko jauna bizi zen eta inguruak bere izena jaso zuen. Ondoren, erromatarren ostean, honen oinordekoren batek herria fundatuko zuen.




Zerain idazteko modua urteetan zehar aldatu den arren, izena berdina izan da. Hau, eskribau bakoitzak bere modura idazten zuelako da, nahiz eta soinua beti bera izan den ("z"-ren soinuarekin). Cerayn izatetik, Acerain izatera pasatu zen eta ondoren Cerain (1.600 urtearen inguruan). Azkenik gaur egun duena hartu zuen, hau da, Zerain.

Zeraingo armarrria lehen aldiz Nafarroako armarren liburuan agertzen da. Arbolaren eta otsoaren ikurra "probintziako Ceraingo jaunaren ikurrak" bezala deskribatzen dira liburuan. Ikur hori familiako ikur bihurtzen da eta ondoren bere lurren ikur (eta herriko ikur beraz).

Jauregia da Zeraingo ikur garrantzitsuenetako bat eta honen historia azaltzen saiatzeko hiru aro ezberdintzen dira. VI-VII. mendearen inguruan Cerio familiak leku honetan dihardu nekazaritzan eta gaur egungo jauregia dagoen lekuan bere etxea eraikitzen du (Basetxea).

Ondoren, XIV-XV. mendeen artean, gerlari alemaniar batek dorretxe bat eraikitzen du gerra egoerak direla medio. Dorretxea XV. mende bukaera arte egon zen, momentu horretan, Juan Garcia de Cerain eta beste hainbat jauntxo hegoaldera bidaltzen ditu erregeak borroka egitera, hemen bertan eta beraien artean borrokan ibili ez zitezten. Juan Garcia honen biloba (Juan Garcia de Cerain III, garai hartan Aguraingo alkatea zena) da dorrea puskatzen duena eta jauregia eraikitzen duena (1492-1525 urteen artean). Ordudanik mantentzen du jauregi izena eta forma.

Ikus dezakegu Zerainek urte askotako historia izan duela, nahiz eta bere izena beti mantendu duen. Jarrai dezala bere izena eta izana mantentzen!



Cerayn



Zerain

CISTELLA HERRIKO ALKATEA BISITAN IZAN DA ZERAINEN



Ekainaren 2an elkartu ziren Zeraingo Udalean Arantza Ruiz de Larrinaga, Zeraingo alkatea, eta Aloña Elortza, zinegotzia, Gironako Cistella herriko Enric Gironella, Cistellako alkatearekin. Ezusteko bisita izan zen arren, oso interesgarria izan zen hartu emana eta bi herriek antzeko gauza asko dutela konturatzeko balio izan zuen.

IBAIALDE ERAKUSKETA EKAINEAN



SAN JUAN SUA



Ekainaren 23an arratsaldeko zortzietan plazara inguratu ziren herritarrek San Joan sua eta bere inguruan antolatutakoak disfrutatzeko aukera izan zuten: haurren dantzak, koruaren abestiak, sua ikusi, suaren gainetik salto egin, afari merienda goxoa jan eta urtekari eta festetako programaren azalen lehiaketan parte hartu bozka emanez. Urteko gaurik luzeena hasteko modu bikaina izan zen.



Izal Imaz eta Contreras

Pintura eta papergintza

20213 Idiazabal

Tel: 943 187 049 / 943 187 045

URTEKARIA ETA FESTAKO PROGRAMAREN AZALEN LEHIAKETA



2018ko festetako programaren azalaren egilea Lur Elortza izan da, urtekariko azalaren egilea berriz, Izar Foroni gaztea. Bien marrazkiek jaso zituzten bozka gehien eta ondorioz beraiek irabazi zuten aurtengo lehiaketa. Zorionak bie!!



UDAKO SOLSTIZIOA

Aurten ere, azken bizpahiru urteetan bezala, udako solstizioa ospatu dute San Blas basilizan. Eguraldi ederraz gozatuz udari ongietorria eman zioten festa giroan.

MUTILOARA JAITSIERA

Mutiloako festetara taldean eta oinez jaisteko duela urte batzuk hasitako ohi-turari jarraitu diogu aurten ere. Herritar talde bat, trikitixaren soinuak alaituta, oinez jaitsi zen sagardo dastaketara. Jende asko eta giro aparta aurkitu zuten Mutiloako sagardo dastaketan.

GIZA KATEA

Euskal Herrian inoiz egin den mobilizaziorik handiena, potenteena eta jendetsuena izango zela iragarri zuten antolatzaileek eta hala izan da: 175.000 herritar kalera atera gara gure etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatzera. Giza katea Donostia, Bilbo eta Iruñea batu ditu.



BURDIN BIDEA



“Burdin bidea” osatzen duten Okzitania, Andorra, Katalunia eta Euskal Herriko erakundeak elkartu dira Goierrin eta Zeraingoan ezagutu dute.



JUBILATUEN IRTEERA ZEBERIORA

Uztailaren 21ean, jubilatuek urteroko irteera egin zuten, Bizkaira, Zeberiora hain zuzen ere. Zabaldu berria zen Errementari museoa bisitatu zuten hasteko, gero ondoan dagoen elizan ibaiko ha-

rriekin egindako mosaiko ederrez osatuta dagoen aterpeko zorua ikusten gozatu zuten. Segidan Andra Mari ermita ezagutu zuten, ermita hori Zeberio 71



auzoetako batean kokatuta dago eta bista ederra ikus daiteke han goitik. Bazkaria Zeberio 71 Ostatuan izan zen. Arratsaldean Zeanuriko artzainei bisita egin eta eguna bukatzeko afari-merienda izan zuten Zeraingo ostatuan.

DENBORA LIBREA

Herriko haurrek eskola amaitutakoan herriko begiraleek antolatutako denbora libreko ekintzez gozatu dute aurten ere. Ekainaren 25ean hasi eta uztailaren 20ra bitartean, lau astez, goizeko 10:00etatik 13:00ak bitartean elkarrekin egon, jolastu eta ekintzak egiteko aukera izan dute.



Anaiak Garajea

Mekanika eta ibilgailu-konponketa

Goardiko Industri poligonoa

20213 Idiazabal

Tel: 943 187 483

EUSKARABENTURA



130 lagun etorri ziren eta gaua pasatu zuten gure herrian uztailearen 16an. Euskarabentura espedizioako kideak ziren, 16-17 urteko gazteak eta beraien begira-leak. Espedizioaren lehen edizio honetan gazteek Euskal Herria zeharkatu dute Mauletik hasi eta Getxoraino uztailearen 1etik 31ra bitartean. Gipuzkoan Zerainen egon ondoren, Tolosa, Hernani eta Irunen egin zuten geldialdia. Aipatutako egunean gure herrian harrera egin genien eta afari goxoa prestatu genien bertako produktuak eskainiz. Aipagarria da afaria prestatzeko lanetan herriko gazte



mordoxka bat bildu zela, eta Segura eta Mutiloako gazte batzuen laguntza ere izan zutela. Ondoren bertako gazteek zein afaria prestatzen aritu ziren herritar guztiak, kanpotik etorritako gazteekin afaldu zuten giro ederrean eliza atarian.



Euskal herriko txoko guztietatik etorritako gazteek Gipuzkoako landa eremuko herri bat gertutik ezagutzeko aukera izan zuten; bertan dugun lasaitasuna eta

edertasunaz gozatu zuten ordu batzuetan, eta noski, euskaraz bizi garela ohartu ziren.



Asko eskertu zuten egin genien harrera eta eskainitako afaria. Guk ere hemendik eskertu nahi diegu gure herrira etorri izana, bere jarrera (esker onekoak izan ziren eta dena oso txukun utzi zuten), eta noski, eskaini ziguten afaloste ederra, kantuz eta musikaz alaitua.



2018ko Andra Mari jaiak

Abuztuaren 14an iluntzeko zortzietan suziri eta kanpai buelta artean Zeraingo emakumeen ordezkariak batek egindako pregoiarekin hasi ziren ofizialki gure herriko Andra Mari jaiak.

2018an asko eta arrakastatsuak izan dira mundu mailan eta Euskal Herrian ere emakumeek egindako mobilizazioak, eta hori kontuan izanda, Zeraingo emakumeek izan dute pregoiaren ardura aurtengo festetan. Herriko emakume guztiei aurrez banatutako kamiseta morea soinean zutela, emakumeen eskubideak aldarrikatu zituzten festetan ere, adin eta izaera desberdineko herriko emakumeek.

Ondoren etorri ziren sagardo dastaketa jendetsua, janari eta edari denak bukatu arte giro ederra izan zen Zeraingo plazan, eta erromeria Gau Argi taldearekin.

Hurrengo egunetan ez ziren faltatu ohiko bola txapelketak, txakolin eta gazta dastaketak, herri kirolak eta beste hainbeste ekitaldi eta ikuskizun.

Festak giro ezin hobean joan ziren aurten. Eguraldiarengatik San Rokeko herri afaria aspaldiko parterez frontoian egin behar izan genuen eta, giro aparta izan zen ordu txikietara arte.











***Nekazari eta produk-
toreak pozik joan zi-
ren Zeraindik, urtero
bezala salmenta ona
egin ondoren. Eta an-
tolatzaileak ere pozik
geratu ginen urteko
hitzordu garrantzitsu
hau arrakastatsua
izan zelako.***

Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren

XXIV. azoka Irailak 16 Septiembre Zerain 2018 Azoka baino gehiago

Zozketa: 2 ordu ekologiko

Eta gainera

- tallerrak - azoka ekologikoa - sagar multzoa - pinakoa - sukazkoak - erakusketak - goierriko artizanatuak - showcooking
- Zeraingo produktuek - Zerain galaxia kulturalean • Azoketik hita gidatzen.
- BURDINAREN MENDIA AIEPITA ADIERAZTEGIA: Labenak, meatz-bitegiak, meatz kargatzeko naskak, galeriak, interkarrien bitegia, administrazio etxea, trenaren plataforma...
- Herri Museoa eta diaporama • Larraondoko zerrategia • Kartzeia

GOIERRIKO 2018ko XI. JARDUNALDI EKOLOGIKOAK

Irailak 18-22

Altaun-Ordizia-Zerain-Segura-Ilsaso

JESUS MARI GONZALEZ
Larraundaketa eta ekosistemak zaintzeko

Irailaren 18a, asteartea
Ataungo Udateko osoko bikurien artean 19:00etan.
"Hiperjarduko mikrobiota, osasunaren jakoa? Kasi nola zintzu"

Durango Etxearekin lidasun integratibeari elidukularia Euskarak.

Irailaren 19a, asteazkena
Orreinalako Barrena Kultur Etxean 19:00etan.
"Daime veneno en la alimentación que nos enferma"
Eneko Yhiza / "Gure platera, Gure Aukera," ekimenak kidetzi Gaztelaniaraz.

Irailaren 20a, osteguna
Zeraingo Kultur Etxean 19:00etan.
"Baratzak Ekologikoen proiektuak"
Leire Ibarrakere Euskarak.

Irailaren 21a, ostirala
Segurako Kultur Etxean 19:00etan.
"Curarse uno mismo, sin los peligros de los medicamentos"
Eneko Landaburu [sendagilea-d.bulgatzailea] Gaztelaniaraz.

Irailaren 22a, larunbata
Itasoko Goiti Baserrian 10:00etatik 14:00etara.
OGI TAILERRA: 15 euro. Apuntatzeko: 605 58 09 26









EUSKAL HERRIA ETA KATALUNIA: ZERAIN ETA CISTELLA HERRIEN ARTEKO HARREMANA ETA SENIDETZEA

Aurten eman diogu hasiera bi herrien arteko harremanari irailean, Cistellako herritar talde batek udal ordezkariekin batera, egindako bisita ofizialaren bidez.

Katalunia eta Euskal Herriaren arteko harremanak luzarotik datoz, biak ala biak estatu gabeko herrialdeak dira eta espainiar estatuan kokatuta daude, arazo eta egoera asko konpartituz.

Azken urtetan Kataluniak martxan jarri duen prozesu independentistak oraindik gehiago elkartu gaitu, horren lekuko dira Zerainen, Euskal Herriko beste txoko askotan bezala, egindako Kataluniaren aldeko elkartasun ekintzak.

Testuinguru horretan duela bi urte Cistellako alkatearen deia jaso zuen Zeraingo alkateak. Cistellako herritar gazte batek azterketa egin zuela, eta Euskal Herriko hainbat herriren ezaugarriak aztertu ondoren, Zerain aukeratu zuela beraien herriarekin senidetzeko aipatu zuen Cistellako alkatea den Enric Gironellak. Tamaina, herriaren ezaugarriak, aktibitatea, kokapena... kontuan izanda, ezaugarri antzekoak genituela ondorioztatuta egin zuen proposamena aipatutako herritarrek. Cistellako Udalak jasotako proposamena bere egin zuen eta horregatik jarri zen harremanetan Zeraingo Udalarekin.


Gauzak horrela, eta poliki poliki urratsak emanez, soilik ideia bat izan zena gauzatzen hasi da. Katalan-en inizatibaz hasitako istorio hau, forma hartzen hasi da eta lehen ekintza 2018ko irailaren 15 eta 16an jasotako bisita izan da. Adin guztietako 45 cistellar etorri dira gure herria eta gu ezagutzera eta esperientzia ikaragarri positiboa eta aberatsa izan da.

Harrera egiteko herritar guztiei eskaini zitzaizkien aukera beraien etxeetara bazkaltzera gonbidatzeko eta asko izan ziren animatu ziren familiak. Guztiei esker mila beraien eskuzabaltasunarengatik. Esan beharra dago, haiek hala transmitituta, familietan egindako harrera bereziki eskertu eta disfrutatu zutela Cistellako herritarrek.

Auzolana elkarrekin eginez, azokako postuak muntatu eta sagarrak biltzen, elkar ezagutuz joan ginen. Iluntzean hasteko triki poteoa, eta bukatzeko sagardotegia Oiharten hango eta hemengo herritarrek elkarrekin. Sekulako giroa eta poza.

Hurrengo egunean gure ondarea ezagutzeko parada izan zuten, Aizpeko mehatzetan. Eta bisitari amaiera emateko gure herriko azoka ekologikoa "bizitzeko" aukera izan zuten. Bertan dastatu eta erosi daitezkeen produktuak dastatuz eta erosituz.

Asko gustatu zaie Zerain Cistellako gure lagunei, hala adierazi digute eta eskertu digute guztien artean egindako harrera. Lagun berriak ditugu zain, gonbidapena luzatuta, ea 2019an zeraindarrek ematen dugun urratsa: lagunak ikustera joanez Cistella ezagutzea.



Mikel eta Arantxa

TAXI adaptatuak - 9 plaza

Tel: 660 132 512 • **Mikel**

Tel: 645 006 737 • **Arantxa**











Ondarre

Harategia · Frutak · Barazkiak


Zurbano kalea
20214 Segura
Tel: 943 800 326

EMAKUMEEN ESKUBIDEAK



Munduan zehar giza eskubideekin gertatzen dena gertutik ezagutzeko erakusketa egon da ikusgai Kultur Etxean.

TRIKUHARRIEN BIDEAN



Segura, Idiazabal, Zegama, Mutiloa eta Zeraingo hirurogei mendizale inguruk urteroko irteera egin dute irailaren 17an, Ataun eta Idiazabal arteko muga, 16,2 kilometroko ibilbidea eginez. Joxean Mujika arkeologoa izan dute bidelagun, eta bertako trikuharrien historia kontatu die parte hartzaileei.

OTATZAKO SUA



Abuztuaren 20an goizean Otatza sagardotegiko kotxe batek su hartu zuen eta ondoan zuen beste kotxea eta ingurua kiskaldu zituen momentu batean. Sustoa handia izan zen baina zorionez Ramoni eta Jose Antonio onik irten ziren.



EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

Urriak 10ean, Erdialdeko Amerikako emakumeen eskubideen inguruko dokumentala ikusteko aukera izan genuen herrian eta eskubideak defendatzen dituen bertako emakume bat gurekin egon zen bertatik bertara hango egoera ezagutu eta hausnartzeko helburuarekin.

'NEKAZAL GIROA, BURDIN USTIAKETA ETA EMAKUMEA'



Zeraingo Herri Museoa, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, nekazal giroa, burdin ustiaketa eta emakumea hitzaldia egingo du Iraitz Agirrek, garaiko emakumearen lana ezagutzeko helburuarekin.

JUBILATUEN EGUNA

Urriaren 21ean ospatu zen herriko aurtengo jubilatuen eguna: mezarekin hasi, eta ondoren bazkaria izan zen Beñat Gaztelumendi eta Oihana Iguaran bertsolariekin. Jende asko, giro ederra eta oso gustura egon ziren Zeraingo jubila-tuak. Aurten ere, beti bezala, bi ordulari zozkatu ziren parte hartu zutenen artean.



2 ARTZAIN MUNDUKO GAZTA LEHIAKETAN



Azaroaren 2an eta 3an, World Cheese Award 2018 jokatu da Norvegiar eta bertan Zeraingo bi artzainek 3 domina lortu dituzte: Idiazabalgo atalean Aranburuk zilar domina jaso du; ardi-gazta ketuen atalean, Aranburuk brontze domina lortu du eta gazta gogorren atalean, Basazabalek zilarrezko domina. Zorionak!!



LUMAGORRIEN URTEURRENA OSPATZEKO EGUNA

Lumagorrik ospakizun handia egin zuen azaroaren 16an Zerainen bertan. Ekitaldi batek eman zion hasiera egunari, eta jende asko hurbildu zen bertara: erakundeetako ordezkariak, euskal sukaldaritzako sukaldari ezagunak, auzotarrak, enpresaren lagun eta gertukoak eta noski, protagonista nagusiak: bazkideak eta langileak.





Ekitaldia bukatuta giro ederrean, jan eta edateko aukera izan zen. Ondoren langile eta bazkideek elkarrekin bazkaldu zuten.



Pozgarria da benetan Lumagorri bezalako proiektu bat gure herrian izatea, lehen sektorekoa eta kalitatean oinarritutako ekimen interesgarria delako. Zorionak Lumagorri eta beste 25 urte bete ditzazula!

AZAROAREN 25A EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN EGUNA



Nagore Laffage -en dokumentala ikusi zen emakumeen aurkako indarkeriaren eguna zela eta, oster, udaletxean enkartelada bat egin zen arrazoi beragatik.



GURE ESKU DAGO

Azaroaren 17an "gizartearen ahalduntzea" mahaingurua izan zen "Gure esku Dago"-k antolatuta, bertan Igor Ortega, Jaume Lopez, Zelai Nicolasek parte hartu zuten Angel Oiarbide moderatzaie zelarik.

EUSKARALDIA



Zerainen ere bai hainbat herritar Euskaraldian inskribatu dira, gure hizkuntza bultzatzeko beste pauso bat emanez. Inskripzioen arabera 51 ahobizi eta 2 belarri prest. Guztira 53 txapa banatu ditu udalak.

EUSKARAREN EGUNA



Abenduaren 3an Aralar mundua leku den lurra dokumentala ikusi dugu hainbat zeraindarrok eta inguruko herrietako herritarrek. Ekintza honen bidez euskararen eguna ospatu dugu herrian, gure testuinguruan eta izaeran sakontzeko aukerarekin batera.

BERTSO TXIKI, SAIO HANDI

Bertso desafioa antolatu da beste urte batez abenduan, eta hiru saio egin dituzte. Lehenengoa Ostatuan, bigarrena sozietatean eta azkena Oiharte sagardotegian. Maialen Akizu eta Eneko Araiz-tegi izan dira irabazleak.



'40 URTE, 40 GEZUR' ZERAINEN EZ!



Espainiar Konstituzioaren 40. urteurrenaren harira, Udalbiltzak 40 urte, 40 gezur erakusketa osatu du eta Zeraindarrok berau ikusteko aukera dugu, Kultur Etxean jarrita baitago ikusgai. Gogoratu behar dugu Zeraindarrok espainiar Konstituzioaren aurka bozkatu genuela.

OROKORRAK

MARIA JEXUX, HERRIKO POSTARIA, JUBILATU DA




Urte amaierarekin batera iritsi zaio gure postariari jubilatzeke garaia. Urte askoan izan da herriko postaria eta bikain eta pazientzia handiz egin du bere lana eta eskertuta gaude horregatik. Udalak esker ona adierazteko lore sorta bidali dio zeraindar guztien partetik.

Zorte on etapa berrian!!!

ERAIKUNTZA BERRIAK



Urtean zehar hainbat eraikuntza berri egin dira: tailer bat, biltegi bat, ukuilu bat eta laster kontsultategi bat irekiko da herri gunean.



ZERBITZU BERRIAK

Osakideratzekin egindako lanketaren ondorioz urriaren 24tik jada martxan da erizain zerbitzu berria. Honi esker herritarrok Zerainen bertan goza dezakegu zerbitzu honetaz, astelehenetik ostiralera 10:30etatik 12:30ak bitartean.

Bestalde, aurten martxan jarri da ZerainLab eta Aldaberen eskutik ogia, egunkaria, esnekiak eta haragi loteak etxez-etxe banatzeko sistema bat. Honi esker zeraindarrok aipatutako produktuak etxeko atean jasotzeko aukera dugu.

SEGURAKO EUSKAL GIROTZE BARNETEGIA ZERAINEN

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpekoa den Segurako euskal girotze barnetegia Zerainen izango da printzipioz 2019ko apirilera arte. Gipuzkoako Foru Aldundiak Segurako aterpetxea erabili beharra izan du bertan gazteak kokatzeko, eta ondorioz, bertatik mugitu beharra izan du euskal girotze barnetegiak oso denbora laburrekin gainera.

Gure herriko aterpetxean kokatu dira eta otorduak Mandioan egin ahal izateko hitzarmena sinatu du Zeraingo Udalak Hezkuntza Sailarekin urte amaieran.

Euskal girotze barnetegietara datozen taldeek euskaraz bizitzea dute helburu eta Zerainek, arnasmune den aldetik, erraztasunak eskaintzen ditu horretarako.



Ongi etorria barnetegia, bertako begiraleak eta haurrak, gure herrira!!!

BASERRIETAKO BIDEAK KONPONDU

2016an egindako baserri bideen diagnostikoa kontuan hartuz, 2016 eta 2017an bezala aurten ere egoera larrien zeuden bideak konpontzen jarraitu dugu. Aurten goan kortatxorako bidean, Aizpean eta Barbarin egin dira konponketak.



ZERAINGO SANEAMENDUA OSATU



Zeraingo saneamendua egin zen garaian, 2010ean, lanak bukatutzat eman zirenean egin beharrekoak ziren Laiotz Lasustegi eta Errekalde auzoetako lanak egin gabe geratu ziren.



Azken hiru urteetan Udalak egindako gestioek emaitzak eman ditu eta bi auzoetako hondakin urak jasotzeko eta Mutiloako kolektore nagusiraino eramateko proiektua martxan da udaz gerotik.

Exekuzio proiektua amaituta dago eta 2019an egingo dira lanak Mutiloa eta Zeraingo udalak, Ur Kontsoltzioa eta Foru Aldundiak batera bultzatuz. Zeraingo 11 baserri izango dira onuradunak eta Mutiloako bat.

MANDIO TABERNA



Mandion urte berriak aldaketa ugari ekarriko dituela dirudi, 2018 honetan Aldabek bere kudeaketa utzi ostean garbiketa egin da. Orain berriro irekitzeko saiakerak martxan dira, herriaren bizia mantentzeko tabernek funtsezko lana egiten baitute.

ZERAINGO GAZTEENTZAT BEKA

Munduko herrialde ezberdinetan dauden bizimoduak eta egoerak, borrorak ezagutzeko Zeraino udala gazteentzako beka bat jarri du martxan 2018an. Beka honen bidez errealitate ezberdinak ezagutzera joan nahi duten zeraindar gazteek 500€ arteko laguntza eskuratu ahal izan dute aurten eta ahal izango duten aurrerantzean ere.

Horren truke gazteek beraien esperientziaren berri emateko prest egongo dira urtekarian edota hitzaldi baten bidez.

UDALA ETA HERRITARREN LANKETA



Urte osoan zehar 3 herri batzar egin dira guztira eta bertan parte hartu zuten herritarrez gain, landutako informazioa etxe orotara bidali da guztiok jakinaren berri izateko.



7 udalbatza eta 3 batzordeen ("zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza", "herri bizitza" eta "tokiko garapena") bilera ugari egin dira, hain zuzen ere, bilera guzti horiek udalaren lana partehartzailea eta gardena izatea dute helburu.

ZERAIN - MUTILOA

Urtean zehar bi herrien artean koordinazioa bultzatu da hainbat bidetik, besteak beste ikastaro partekatuekin, mehatzen proiektu bateratua osatzeko, bi herriko festa ezberdinetan presentzia, saneamendua, ... eta noski baita ere elkarrekin egoten.



HIRUGARREN URTEKO BALORAZIOA

Udalak aurreko bi urtetan bezala, hirugarren urteko bere lanaren balorazioa burutu du. Horretarako etxe guztietan galdeketa bat banatu da, modu anonimoan eta indibidualean betetzeko eta ondoren postaz bidaltzeko. 103 herritarrok parte hartu dugu balorazioan eta galdeketa dagoeneko bildu dira eta hauen emaitzak beti bezala herri batzarrean plazaratu dira eta Herri Batzarreko txostenean argitaratu dira.



IKASTAROAK

2018-2019 Ikasturte berrian Segura, Mutiloa eta Zerainen ikastaro ezberdinak antolatu dira elkarlana bultzatzuz.

Honako hauek dira martxan dauden ikastaroak:

EUSKARA: Segura

YOGA: Zerainen

ZUMBA: Zerainen

MUSIKA: Zerainen

HERRI ESKOLA

**2018-2019 ikasturteko
eskolako haurrak**

Goitik behera eta ezkerretik eskubira:
Aetz, Lur, Aimar, Enara, Aner
Inge, Leire, Joane, Bidatz, Eneritz
Elene, Paule, Libe, Adei, Oihan, Anne
Mara, Nahia, Jare

(Argazkian Maialen falta da)



JAIOTZAK

**Izar
GIMENEZ CENDON**

2018-12-20

HERIOTZAK

2018ko urtean
RAFAELA ALUSTIZA ALUSTIZA 2018-03-28

BIZTANLEAK

2017-12-21ean
Zeraingo biztanleak:..... 264



2018ko Gabonak

Gabonetan baserriz baserri kantuan aritzeko ohiturari eutsi diogu beste behin. Urteak dira geure herrian eskolako taldea eta herriko taldea abenduaren 24an abastera irteten direla.

Auzo, baserri eta etxe guztietan abestu dugu.

Goizean 9:00etan elkartu dira haur eta gurasoak herriko plazan eta elkarrekin goiz osoan senideen etxeetan eta kaskoan ibili dira abesten.

Gaztetxo, gazte eta helduen taldea goizetik Bittoriorekin ibili da auzo guztietan. Elkarrekin bokata bat jan eta gero kasko eta inguruko etxeekin bukatu dute arratsaldean.
























2018. urtea Basarte Guraso elkartean

Aurtengoan ere hemen gaituzue Basarte Guraso Elkartearen berri emateko asmoz. 2018. urtea eguberrietako oporren ostean indartsu hasi genuen. Aurreko urtekarian aipatu bezela, ikasturteko lehen hiruhilabetekoari DoReNi proiektuarekin ekin genion, haurrak oso gustora ibili ziren eta emanaldi ederra eskaini ziguten Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Ondoren, konturatzerako, gainera etorri zitzaizkigun ihauteriak. Urtero moduan haurrek eskolan prestatutako emanaldia eskaini ziguten guraso, aiton-amona eta gerturatutakoei baina oraingoan ezusteko txiki bat ere izan zuten, guraso mordoxka animatu baitzen mozorrotu eta dantzaz parte hartzera. Ohiko meriendaren ondoren iluntzean afari mokadua egin genuen denok soziedadean.



Apirilean urteroko bazkaria egiteko aukera izan genuen Oiharten. Segidan Kultur Astea ere ate joka etorri zitzaigun eta marrazki rallya ere bai, nola ez, artista bikainak dauzkagu herrian!!!

Maiatzean, Goierriko eskola txikien festa Ezkion ospatu zen eta ekainean, Gipuzkoako eskola txikien festa berriz Oikian, eguna aprobetxatuz urteroko asteburu pasa egin genuen, oraingoan Lasturren. Azken hiruhilabetekoan hasi ziren herriko umeak, Andrea dantza irakaslearekin San Juan bezperako dantza zaharrak erreperatu eta berriak ikasten. Hau izaten dugu guraso elkartean ikasturteari amaiera ematen dion ekintza.

Udako opor luzeak ere motx egin zitzaizkigun, ekainaren amaieratik uztailaren amaiera bitarte, herriko begiraleez osatutako ludotekan parte hartzeko aukera izan zuten haurrek eta ondoren herriko jaietako umeen egunean ederto pasatu zuten!!!

Irailean ikasturte berriari hasiera eman genion 2 ikasle berriekin, Mara Ormazabal eta Jare Gimenez, Ongi etorri!!! Bestalde, Elorri Arregui, Amets Ojanguren, Maddi Telleria eta Luisa Gorro-

txategiri berriz Zeraingo herri eskolatik beste eskola batera joateko garaia iritsi zitzairen, zorte on guztioi!!!

2018. urte honetan aipatzeko ekintzen artean berezienetarikoa Zuhaitz landaketaren eguna izan dugula esango genuke. Egun borobila izan zen azaroaren 17a, goizean goizetik eguzkia lagun izan genuen eta. Ner Group eta Eskola Txikietako koordinakundeak elkarlanean antolatuta, Zeraingo herri lurretan landatu genituen 500 bat zuhaitz landare (haritzak, pagoak eta urkiak), helburua, baso autoktonoak berreskuratzea izan zelarik. Lanean Basarte guraso elkarteko kideez gain, Ner Groupeko lagunak eta beste guraso elkarteetatik bertaratutakoak aritu ginen basozainaren laguntzaz. Ondoren, plazan, hamaiketakoaz gozatzeko aukera izan genuen eta jolasekin eman genion amaiera egunari. Egun dotorea benetan!!!

Azaroaren 24an ohiko gaztaina eta talo jana egin genuen, gustura aritu ziren haurrak taloak eginez eta baita besteak ere

jan edanean. Abenduaren 3a, euskararen eguna zela aprobetxatuz ipuin kontalariaren bisita izan genuen arratsaldean eta 2018ko urteari amaiera, ohiko gabon eskearekin, olentzeroren opariekin eta ipuin kontalariarekin eman genion.

2018-2019 ikasturteko Guraso elkarteko karguak

- **Lehendakaria:** Miriam López de Dicastillo

- **Idazkaria:** Alaitz Makatzaga

- **Diruzaina:** Arantzazu Gereñu



▲ Doreniko

▼ Iñauteria



HERRIALDE KATALANETARA BRIGADA

Izar Foroni Ruiz de Larrinaga

Urte honetako abuztuaren 28an abiatu ginen Altsasutik hurrengo 17 egunetan zehar Askapena erakundearen Herrialde Katalanetako brigada osatuko genuen lau partaideak. Autoa hartu eta Alacanterantz bideratu ginen, bertan hasi baitzen gure ibilbidea; gure hegaldia hobe esanda, brigadari hasiera Balear Uharteetako Palma hirian eman baitgeninon.



OCB (elkarte kulturala) eta Valtoniken babes taldea

Brigada hau urtero mantentzen den arren, aurtien izan da lehena brigada penintsulatik irten eta Balear Uharteetara joan dena. Bertan, erakunde ezberdinen eskutik, ziurtatu dugu uharteak Herrialde Katalanen barne direla baina euren artean ez dute arxipelago nortasun bateratu bat, baizik eta irla bakoitzak bere identitate propioa garatu duela. Baita ere, frankismo garaiko gatazken ondorioz, uharte bakoitza maila ezberdin batean turistifikatu dela.

Gure egonaldia Palma hirian burutu zen, eta bertako errealitatea ezagutzeko hainbat erakunderekin bildu ginen. Turistifikazioak uharteak gogorrago jotzen dituen heinean borroka ekologistak garrantzi handia izan du Mallorkan, borroka honetan erreferente nagusia GOB (Grup d'Ornitologia Balear) litzateke. On-

doren, irlako hazkunde ereduak arlo kulturean ere eragina izan du irla honetan, honen berri eman ziguten OCB (Obra Cultural Balear) elkarteko kideek. Bestalde, Grup de support llibertat Valtonyc plataformarekin bildu ginen eta Mallorcako rapero honen errepresio kasua ezagutu genuen. Amaitzeko, Alacanterantz itzuli aurretik, Mallorcako Ezker Independentistako koordinazioko kideekin bildu ginen tokiko errealitate politikoa ezagutzeko.

Mallorcan ikusitako guztia motxilan sartuta, Alacanterantz itzuli ginen, bertan hasi baitgenuen País Valenciàko ibilbidea.

Lurralde honek erritmo eta errealitate oso ezberdinak ditu bere baitan eta leku batetik bestera dagoen aldaketa nabaria da. Hau, hein batean, gaizki deituriko trantsizio garaian jasan zuen

espainolizazio gogorragatik da. Hau ulertzeko jakin behar da País Valencià izan zela erresistitu zuen azken tokia eta horregatik, bereziki zigortuak izan zirela bai gerra garaian bai hau amaitu ondoren. Gure ibilbidea Alacant, Valentzia eta Castellon hirietan zehar burutu genuen.

Diktadura osteko errepresioaren aztarnak ikusgai dira edonon eta brigadari dagokionez, gure ibilbidean zehar gorpu hauetako batzuen hilobitik ateratzearen lekuko izateko aukera izan genuen Paternako hilerrian. Gainera, gerra osteko Maki gerrilarien borrokaren berri izan genuen historialari baten eskutik. Mugimendu antifaxistari dagokionez, bertako egoera ere azaldu ziguten hainbat erakundek eta urriaren 9an izan zen manifestaziorako deialdia ere zabaldu ziguten. Hizkuntzaren egoera ere ezagutzeko aukera izan genuen, hala nola Alacantena, hau katalanak eraso gogorrena jaso duen lurraldean dagoen hiztun kopurua %3ra baino ez da heltzen, eta hori katalanak jendartearen eta instituzioen partetik jasan duen gutxiespenaren ondorioa da.

Bestalde, eta batez ere Valentzian eta Alacanten, lurra eta euren ondarearekiko suntsipena nabaria da. Kontrolak gabeko eraikuntzaren ondorioz, bertako lurrak eta ingurumenak sekulako kalteak pairatu ditu eta honi aurka egiteko Valentzia hiriko Per L'Horta bezalako plataformak sortu dira. Valentzako BDS plataforma ere ezagutu genuen, hau, munduan kanpaina honek

indar handiena hartu duen hiria baita hain zuzen ere. Amaitzeko, politikari dagokionez, Mallorcan ikusi ahal izan genuen bezalaxe, lurraldetasunaren afera eta erronkak, era berean, agerian geratu ziren beste behin, horregatik, País Valencià-k dituen baldintza zailetan erronka nagusia mugimendua sendotzea da.

Gure ibilbidea iparralderantz jarraituz eta País Valencià atzean utzi eta Principatera heldu ginen.

Bertako gure esperientzia Els Guimets herrian hasi zen, landa eremuan dagoen 300 bat biztanleko herria. Herri txiki haren idiosinkrasia ezagutzeaz gain memoria historikoa ere landu genuen. Baita ere, alkateak, "herriarena dena herriari itzuli" lema-pean udalak eraikin bat okupatzeko hartu duen erabakia azaldu zigun.

Ondoren gure bidaiak Manresa hirira bideratu gintuen, bertako PAHC (*Plataforma de Afectados por la Hipoteca*) plataforma ezagutu eta honen inguruan sortu diren obra sozialak era azaldu zizkiguten, hala nola eskola popularra eta emakumeen jabekuntza taldea.

Ostera Sallenten izan ginen, Ana Gabriel preso politikoaren jaioterrian eta bertan, Free Anna Gabriel-ek egiten duen lana azaldu ziguten bertako kideek.



Paterna

Gure ibilbideak Bergan jarraitu zuen, bertako CDR-aren lana ezagutuz eta bertan ere sindikalgintzaren arloan aurrera eramaten ari diren hainbat borrokaren berri izanez COS eta CGT sindikatuen eskutik. Montse Castañé Càrnies en Lluitako eta COS ezker independentistako sindikatuko kideak txerrien hiltegi-tako lan baldintza prekarioez aritu zitzaizkigun.

Hurrengo egunean Bartzelonara bidean jarri ginen. Kataluniako hiriburua den munstroa gure zain geneukala. Irailaren 11n Diada eguna ekitaldi eta manifestazio artean bizitzeko aukera izan genuen, eta egun honen eromena amaituta, brigadaren azken 2 egunak Bartzelonako errealitate politiko eta sozialaren hurbilpen ariketa gisa hartu genituen. Hurbilpen ariketa diogu bi egunetan ezinezkoa delako Bartzelona bezalako munstroa behar bezalako sakontasunarekin aztertzea. Hasteko eta behin La Jornada egunkariaren erredakzioari bisita egin genion kazetaritza kritikoa oinarri, Herrialde Katalanen osotasunaren errealitateari erantzun nahi dion proiektu kooperatiboa da hau.

Bartzelonako mugimendu sozialei dagokionean, hainbat izan dira ezagutu ditugun esparruak: okupazioa Graziako Kasa de la Muntanya-ren bidez, mugimendu feministaren erronkak eta

martxoaren 8aren nondik norakoak Gràcia auzoko emakumeen asanbladarekin, errefuxiatu eta migranteen egoera Tanquem els CIEs kolektiboarekin, manteroen sindikatua edota sexu langileen borroka.

17 egun Herrialde Katalanetan bueltaka ibili ondoren, hamaika irakaspen atera eta motxila bete etxerako lan itzuli ginen etxera. Eztabaida aberasgarrien bidez Kataluniako prozesu independentistaren kontraesanak gutxi ez direla ohartu eta gurean ekidin beharreko zenbait elementu atera genituen. Zailtzarik gabe bide luzea dugu egiteko bi herriek baina bide horien arteko zubiak eraikiz ibilbide xamurragoa izango dela argi dugu uda honetan Herrialde Katalanak lehen leerroan ikusi ditugun brigada kideek.

Honela amaitu ziren brigadak iraun zituen 17 egunak, honetan zehar etxeetan, tabernetan, lokaletan eta auzo eta herrietan hartu gintuzten denei eskerrak emanez, eta bereziki galdera eroso eta deserosoak erantzuteko prestutasuna izan zutenei. Eskerrak ere udalari horrelako bidaia burutu ahal izateko laguntza eskaintzeagatik eta zuei irakurleoi, gure bidaiaren berri jakin nahi izanagatik. Esperientzia paregabea izan zen eta aukera duen orori gomendatzen diot!



Per L'horta Valentzia

LUMAGORRIK 25 URTE BETE DITU

Aurten 25 urte bete ditu Lumagorri elkarteak. 25 urte, baserriaren eta baserritarraren kultura eta bizi modu hobeko baten aldeko balioak defendatzen.



Azaroaren 16an izan zen urteurrenaren ospakizun ekitaldia, Zerainen dagoen Lumagorriren egoitzan. Jende asko bertaratu zen: sortzaileak, egungo ekoizleak, langileak, sukaldariak, bezeroak, instituzioak eta beste hainbat lagun. Bertan izan ziren Iñigo Urkullu lehendakaria, Markel Olano diputatu nagusia, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua, Ainhoa Aizpuru Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko foru diputatua eta Arantza Ruiz de Larriaga Zeraingo alkatea, besteak beste.

Ekitaldian Lumagorriren 10 ekoizle sortzaileak omendu ziren. Baita urte guzti hauetan zehar bidelagun izan diren "Baserriko Oilaskoaren Lagunei" eta balio-kate guztia ordezkatzen duten bezeroei ere eskerrak eman nahi izan genien.

LUMAGORRI: 25 URTE NATURA ETA LANDA EREMUAN OINARRITUTAKO HISTORIA PAREGABEA EREITEN

Produktuaren, egituraren, merkatuaren... definizioa, duela 25 urte, horren guztiaren inguruko gogoeta egin zen, bakarra eta paregabea izan zedin.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik, apustua oso garbia izan zen: MAILA GORENEKO KALITATEA ekoiztu, transformatu eta merkaturatu.

Hala ekin zion Lumagorri, ideia berritzaileak zituen landa sektoreko ilusioak, eredu bakar eta aitzindariari. Hazteko sortutako eredua, izan ere, Eusko Labeleko beste produktu batzuek ere gure eredua jarraitu baitute.

BERTAKO HISTORIA: baserritarrek asmatua eta sortua proiektu oso gisa. Baserri-tik hasi eta kontsumitzailearengana iritsi arteko kontrola, bertakoa izateak (km0) ematen duen konfiantza sendotuz.

KALITATEZKO HISTORIA: Eusko Labela duen oilasko bakarra. Betiko genetika zaindua, emeen hautaketa, 3 hilabetezko hazkuntza, animalia- eta landare-koiperik gabeko elikadura.

Lumagorri animalia-ongizatea eta baserriaren bizi-kalitatea balio lehenetsiak ditugu.

NATURAREN HISTORIA: hazkuntza libre larrean, landa garapen iraunkorra, 40 baserri ekoizpenean eta 30 langile nekazaritzako elikagaien industrian, emakumearen egitekoa bultzatuz sektorean (baserrietan % 80 eta transformazioan %60).

HISTORIA ZORAGARRIA: grinaren eta ahaleginaren fruitua, 8 milioi Eusko Labeldun Baserriko Oilasko ekoiztea eta merkatu-atzea ahalbidetu duena.

HISTORIA PROFESIONAL: euskal sukaldarien inplikazioa, 12 Michelin izar baino gehiago, "Baserriko Oilaskoaren Lagunak", horiek guztiak gu babesten gure proiektuan hasiera-hasieratik. Gure sukaldaritza eta platerak baserriaren esperientziaren erakusleho izanik.

HISTORIA LUZEA dugu Lumagorri, 25 urteek bermaturiko JAKINTZA eta kontsumitzailearen hautaketa osasuntsuarekin agerian geratu zaiguna. Aurrerantzean ere gure ardatz nagusiekin jarraituko dugu lanean: KALITATEA eta KONFIANTZA.



Biolur

25 urte lanean

2018 urte berezia izan da Biolur elkartearentzat, urteurren boro-bila betetzen du, 25 urte! Festa giroan elkartu eta ospatzeko asmoa genuen, Beizamako ate irekien egunean, baina eguraldi aurreikuspena medio bertan behera utzi behar izan zen. Urte-betetze festa xumeagoa izan beharko batzar nagusian.

Urteko beste ekintzak bere horretan joan dira, proiektuak, lan taldeen martxa eta nola ez uda eta udazkeneko azokak. Zazpi azoka antolatzen dira; Zarautz, Donostia, Errenteria, Zerain, Urretxu, Aretxabaleta eta Eibarren. Batzuk aste edo hamabostaldi ekologikoen barnean antolatzen dira eta beste batzuk azoka soilik. Hauen artean Zeraingoa berezia da, ospatzen hasi zen lehenengo azoketakoa, Tolosarekin batera, ia elkartearekin batera sortu ziren 1994. urtean.

1993an baserritar talde batek sortu zuen Biolur, elkartearen helburu nagusia nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sustatzea izan da. Helburu nagusi horrek biltzen ditu: nekazaritza eredu ekologikoa sendotzea, gure baserritarren etorkizuna ziurtatzea eta kontsumitzailearentzat osasungarriak diren elikagaiak ekoiztea, guztia animaliak eta ingurumena errespetatuz. Gaur egun helburu nagusia mantentzen da baina marko zabalegia hartzen duela sentitu izan dugu azken urteetan. Denbora eta indarrak mugatuak dira denean eta elkarte bezala norutx goazen gehiago zehaztu behar genuela iruditzen zitzaigun, burutzen diren lanak bide horretan aurrera egiten lagunduko gaituztenak izan daitezten.

Asmo horrekin Biolurreko batzarkideak eta bulegoko teknikariek fazilitazio prozesu bat burutu dugu Isa Alvarez-en laguntzarekin. Baina 10-12 pertsonak esandakoak ezin du elkartearen norabidea ezarri beraz 2019ko helburuen artean prozesu hori lan taldeetara eta orokorrean elkartera zabaltzea dago eta funtzionamendua erraztuko duten erremintak martxan jartzea.

Faziliazioa burutzea izan da Batzar Nagusia atzeratzeko arrazoia, joan den abenduaren 1ean ospatu zen Antzuolan, duela 25 urte sortu zen lekuan. Bertan elkarteko lehendakaritza bete duten baserriei, Lapatza, Txilarre, Haritzizabal omenalditxo egin zitzaizen. Talde txikia bildu ginen, elkarteko batzarkideek urteko gora beheren berri eman genuen eta gero denok tertuliarako aukera izan genuen. Bidelagun 25 urtez eta datozenetan!!!




Biolur Gipuzkoako abeltzaintza ekologikoan baliabide propioekin energia sortzeko eta autonomian sakontzeko diagnostikoa.



Biolur Aleka. Hazi ekoizpena.



Biolur debabarrena azoka ekologiko.



Biolur Goieko haragia



Biolur Olabeiko

Juneren amets zirraragarria

Bazen behin June izeneko neskabila bat; zortzi urte zituen. Gehien gustatzen zitzaiona bere lagunekin abentura izugarriak bizitzea zen. Zerainen bizi zen eta bertako basoak esploratzera joaten zen arratsaldero bere lagun taldearekin. Arratsaldero egiten zuten planaren arrazoia honako hau zen; June bere aitonak kontatu zion kondaira batekin izugarri txoratua zegoen.

Aitonaren kondairak zioenez, lamia batzuk omen zeuden Euskal Herriko txokoetan ezkutaturik eta June lamia haiek aurkitu nahi zituen. Baina udaberriko arratsalde eguzkitsu batean, egunero bezala, baso polit bat esploratzera joan zen bere lagun Josu eta Nahiarekin. June ziur zegoen lamiak aurkituko zituztela arratsalde hartan, baina ez zen berak pentsatu zuen bezala atera plana. Arratsalde osoa igaro zuten baso handi eta polit batean txoko paregabeak ikusten eta lamiak aurkitu nahian.

Beraiek ohartzerako ilundu egin zen eta ez zekiten nondik joan etxera eta zer egin. Josuk ideia bat izan zuen; gaua ikusi zuten koba txiki batean pasatzea eta hurrengo goiza iristen zenean, errekarri jarraituz irtenbideren bat aurkitzea. Bi neskak ados zeuden planarekin eta kobarako bidea hartu zuten. Koban elkarren ondoan jarri ziren. Denak lo zeudela, June esnatu egin zen eta barre hots batzuk entzun zituen erreka ingurutik. Bere lagunak esnatu eta errekarako bideari ekin zioten. Errekara iristean ezin zuten sinistu zer ari ziren ikusten, lamiak zebiltzan errekan jolasean!. Hiru lamia zoragarri ziren ile luze eta mard. Hiru lagunak lamiengana joan ziren eta gertatutakoa kontatu zien eta lamiak laguntza eskaini zien. Baina beraiek ez zuten laguntzarik nahi, beraiekin egon baizik. Gustura zeuden hizketan eta konturatu orduko egunak argitu zuen.


Lamiak eta hirukotea lagun handiak egin ziren eta arratsaldero ikustekotan gelditu ziren. Lagun taldea oso gustura zegoen etxerako bidea aurkitu zutelako, baina, batez ere, lamiak ezagutu eta lagunak egin zirelako.


Nahia bere etxera iritsi zenean, bere gurasoak izugarri larriturik zeuden ea Nahia non zegoen ez zekitelako. Izugarri poztu ziren Nahia ondo zegoela ikustean, baina oso haserre ere bazeuden, ez zutelako ezer jakin bere alabaz egun osoan. Gainera, gauean etxera ez zirela etorri ikusita, are gehiago larritu ziren eta Nahia zigortu egin zuten. Baita Josu eta June ere. Gurasoei ez zieten ezer kontatu nahi izan. Baina zigorra amaitu zitzaientean, arratsaldero bezala lamiarekin elkartzen jarraitu zuten.

Lamiak oso gustura egoten ziren eta hirukotea ere bai. Denak zoriontsu bizi izan ziren sekretua ondo gordez eta arratsaldero elkarrekin egonez.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabaza eta atera dadila Zeraingo plaza.

AIZPEA ELORTZA ELORTZA





Lur Elortza Altuna



Aetz Elortza Altuna



Eneritz Aizpeolea Gereñu



Enara Aizpeolea Gereñu



Eskerrik asko

Zerain Dezagun Fundazioari



Eskerrik asko

Zeraingo Udalari



Eskerrik asko

Basarte guraso elkarteari



Eskerrik asko

Liztormendi Elkarteari





Elikadura osasuntsu eta orekatua

Gure baserriko belardietan
betiko eran hazia

Eusko Label egiaztagiria duen
oilasko bakarra

Haragi fin, zaporetsu eta xamurra



Lumagorri S.L.

Zabalegi aldea

20214 ZERAIN (Gipuzkoa)

943 800 100 www.lumagorri.es



LumaGorri

25 URTE BENETAKO BASERRIKO OILASKOA HAZTEN
25 AÑOS CRIANDO EL AUTÉNTICO POLLO DE CASERÍO